

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Funtsezko baliabideak finkatuta utzi ditugunez, bakoitzak egin behar dituen jarduerak zehaztu behar ditugu. Taldekide bakoitzak dituen bertuteak modu egokienean aplikatu behar ditugu, bakoitzak hoberen egingo dituen ekintzak finkatzeko. Izan ere, atal honetan azalduko ditugun eginbehar hauek funtzeskoak dira gure enpresarentzat.



Hasteko, kanalen atalean esan bezala, lokalean arreta-zerbitzu gune bat izango dugu eskuragarri, horretarako, bezeroren batek arazoren bat edukiz gero, pazientzia, hitz egiteko modu ona eta errespetu handia duen lankide bat behar dugu, honela, bezeroari lagundu ahal izateko gai izango gara. Gure kasuan, Iñigo arduratuko da lan honetaz, adeitasunez hitzegiteko trebetasun handia du eta txiparekin edozein arazo edo zalantzaren bat egongo balitz, hauei aurre egiteko eta arazoa konpondu ahal izateko gai izango da.

Enpresa baten irudi publikoa ezinbestekoa da itsura ona emateko, horretarako, publizitate on bat trebetasunez egiteko erraztasuna behar dugu. Iñigok jendetasun handia edukitzeaz gain, sare sozialak oso ondo maneiatzen ditu. Bertan, gure produktuaren argazkiak eta informazioa jasoko ditu, horrela, gure txipa jende askorenganaino iristeko.

Bestalde, produktua ondo ulertzen duen aditu baten beharra dugu, izan ere, enpresak aurrera egin ahal izateko produktua programatzea eta konponketak egitea ezinbestekoa da. Programazio eta konponketa lana egiteko egokiena Iker da, "Ping GPS"-aren funtzionamenduaren eta konponketen inguruko jakintza handiak dituelako eta edozein motatako teknologiarra moldatu daitekelako.

Bestetik, kanaletan aipatu bezala, publizitatea egingo dugu eta sare sozialetan presentzia edukiko dugu, horretarako, diseinu erakargarriak beharko ditugu. Leire diseinuaren arloan trebea denez eta betidanik oso interesatua egon denez, bera arduratuko da hau egiteaz. Iraganean irabazitako esperientziak asko lagunduko dio bere eginkizuna modu egokian burutzen. Esperientzia honek lana eramangarriagoa eta errazagoa egingo dio.

Gainera, esan bezala, Joneren komunikazio ahalmenak aprobetxatuko ditugu beste enpresa eta elkarte batzuekin aliantzak egiteko. Hau izango da bere lana; interesatzen zaizkigun enprekin harremanetan jarri eta hauekin adostasun batera iritsiko da. Oso garrantzitsua da hasieratik harreman sendoak izatea luzaroan beraiekin jarraitu ahal izateko, eta, honetarako, ezinbestekoa da lan hau.

Azkenik, Jon diruaren administrazioaz arduratuko da. Baliabideetan azaldu dugun bezala, honek esperientzia handia du jarduera mota hauetan eta ekonomian proiektu bat gauzatzen trebetasun handia duenez, aukera bikaina da gure enpresak arrakasta izateko eta aurrera egiteko ekonomikoki. Beraz, enpresako diru mugimenduetan arreta jarriko du. Bai salmenak behatuz, bai proiektua arrakastatsua izateko erabaki ekonomiko zuzenak hartzea ere.

